

Biblioteka amestuz

Euskaltzain oso izendatu dute ofizialki Joan Mari Torrealdai, Forua bere herrian. Euskal bibliografia jasoko duen Euskal Biblioteka aldarrikatu du Euskaltzaindian sartzeko eginiko hitzaldian

IRUNE BERRO. FORUA

Utopiak, ametsak, saioak eta ahaleginak zein izan diren ikusteko eta ikasteko baliatu behar ditugu urtemugak, Joan Mari Torrealdairen irudiko. Euskaltzaindiaren mendeurrena hizpide hartuta, urteurrenek atzera begiratzeko parada ez ezik besterik ere eskaini ahal dutela aldarrikatu du euskaltzain oso eta idazleak: etorkizunari begira amets egiten jarraitzeko aukera izan daitezke. Halaxe mintzatu zen atzo Forua bere herrian (Bizkaia), ofizialki euskaltzain oso bihurtu zuen ekitaldi solemnean. Bibliografiatik Bibliotekara. Esperantzari leihoa hitzaldia egin zuen Torrealdaik, euskararen akademian sartzeko protokolozko zeremonian. Amets egiteko hautabidea aldarrikatu zuen egun eguzkitsuan, eta Egunkaria auziko epaiketaren gertutasunaren itzalpean ere. Euskal Bibliografia eta Euskal Bibliotekaren lehen ahalegin eraginkorren mendeurrenaren atarian gaude, esan zuen. Euskal Herri osoko biblioteka bat ametsa ala ameskeria al da? Ametsa iruditzen zait niri, baina bihar egingarria, zergatik ez?. Euskal Gutenberg egitasmoaz jardun zuen, halaber. Zer litzatekeen Euskal Gutenberg? Labur-labur esanda, Michael Harten Project Gutenberg delakoaren euskal bertsio egokitua. Hark egin asmo zuena eta gauzatzen ari dena zera da, munduko ondare bibliografikoa osoki digitalizatu, domeinu publikoko liburuetatik hasita. Torrealdaik azaldu zuenez, 1971n abian jarri zutenean, egitasmo hura handinahia eta irreala zela salatu zuten askok. Denborak, ordea, arrazoa kendu die. 20.000 titulutik gora digitalizatu dituzte jada, eta 2015erako milioi bat titulu izan ditzaketela aurreikusitako dute. Euskal Gutenberg-ek euskarazko liburuak digitalizatu beharko litzuke hasiera batean, eta ondoren, beste hizkuntza batean idatzirikoak, Torrealdaik zioenez.

Izan ere, mendeurrenaren abagunea baliatuz badira errealitate bihurtzeko moduko bi amets, euskaltzainaren iritziz. Euskarazko bibliografia eta Euskal intelligentsia-ren inbentarioa, alegia. 2017an ehun urte beteko ditu Euskaltzaindiak, eta garai horretara salto eginez amets egiten duenean, zero puntuan ez gaudenez gero, euskararen bibliografia eratze bidean imajinatzen duela azaldu zuen atzo.

Mendeurren opari polita izango litzatekeela sinetsita dago. Euskarazko ekoizpena bilduko luke, baina baita euskarari buruz mundu zabalean argitara eman den guztia ere, Jon Bilbaok egindako lanetik aurrera. Euskaltzaindiaren ikergune berri bat izan daitekeela uste du, ahala eta nahia uztartuz gero.

Areago, Euskal Bibliografia ere laste gauzagarria izango dela uste du Torrealdaik. Bibliografiagune bat eta bakarra. Hots, Euskal Herri osoko informazioa jaso eta bideratuko lukeen gunea izan beharko lukeela adierazi zuen. Pizkundeko egileek nahi zuten bezalakoa; gurekin edo gure herriarekin loturiko arlo guzti-guztiak bilduko lituzke bibliografia gune honek. Euskaltzainaren iritziz, mila arrazoiengatik izan daiteke garrantzitsua gune orohartzaile bat izatea. Barrura begira zein kanpora begira. Barrua antolatzeke, eta kanporako leiho edo atari.

Izan ere, gaur egungo mundu globalizatuaren nolakotasunak aintzat harturik, itsasoarekin konpara daiteke Internet, edo oihanarekin. Eta nor gara gu? Txikiak, ezdeusak, ezta? Baina bagara, eta izaten jarraitu nahi dugu. Eta ikus gaitzaten nahi dugu. Beraz, gune edo atari hori izango litzateke gure ikusgarritasunerako lanabesa, baieztatu zuen Torrealdaik, gure kulturaren berri izatea nahi badugu, *conditio sine qua non* da gune bat izatea erreferentzia gisa, identifikatzeko tresna. Haren ustez, adituei dagokie gunea diseinatzea, barrura eta kanpora begira, bi isurietan, tresna eraginkorra izan dadin. Esan zuenez, frantsesak kezkatuta daude euren kultura ikusten ez delako nonbait. Kezka hori ez dut nabaritzen geurean. Agian, amore emanda gaudelako. Bada, egin dezagun amets!, gonbita eta deia egin zuen Torrealdaik. Eskakizuna ere bai: Utzidazue errealitatearen gainetik amets egiten.

Alabaina, euskal intelligentsia-ren inbentarioa ez da ametsa soilik. Errealitatea ere bada, gaur-gaurkoz. Euskalduna ekintzetan luze, hitzetan labur topikoa onartutzat ematen da eta suposatzen egiten da euskaldunak ez duela idatzi, edo gutxi idatzi duela. Zergatik suposatzen da hori? Idatzi dutena ez delako ezagutzen. Eta zergatik ez da ezagutzen? Inoiz ez delako sistematikoki arakatu. Jakin aldizkarian, baina, Joxe Azurmendirekin amets hori egia bihurtzen hasiak direla ospatu du Torrealdaik, eta ametsa baino errealitate oparoagoa aurkitu dugu. Zientzien edozein alorrean, Europan nahiz Hego Amerikan, euskal herritarrak askok argitaratu dituzte liburuak. Euskal Biblioteka amesten du, orobat. Biblioteka modernoa, hibridoa ikusten dut nire ametsetan. Edukietan hirukoitza: analogikoa, digitala, birtuala, hots, liburua euskarri guztietan hartuko duena. Eta, izaeran, fisikoa eta hormarik gabea aldi berean. Bertatik bertarako zerbitzua emango duena, baita urrutikoei ere. Pizkundean diseinaturiko liburutegiaren antzik badu Torrealdaik aldarrikaturikoak. Bibliotekaren xede nagusia euskal jendeari dagokion guztia biltzea izango litzateke. Eta hori mundu osoaren aurrean jartzea, bibliografiaren bidez aurrean, bibliotekan ondoren. Gaur egun ere baliagarri zaigun ikuspegia iruditzen zait, oraindik osoki erdietsi gabea. 1918ko eredia egoki ikusten du, halaber, kudeaketari dagokionez. Erakundeen artean organismo autonomoak sortu (Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza) Euskal Herri osoa bere baitan hartzen dutenak, alegia. Abantaila bat bederen baluke horrek: liburutegia unean uneko liskar politikoen eremutik aterako luke.